# Gauerakoan

Kepa Fernandez
de Larrinoa

poesia
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1984 Kepa Fernandez de Larrinoa
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1984
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

# I. aldea:
# BIZI NAIZEN MUNDU HONETAN

existentziaren zama astunean
izadiaren gauzarik ttipienetan barrena
bizi daitezke ametsik lasaienak

# Nire gela?

Nire gelan ateak, zur zaharrezko marroi iluna,
deskriba dezake malko eta irribarre; leihoak,
zuri argia, kristalaren transparentziaz
nolako desirak abiatu diren jakin badaki;
pareta berdea, eta hezea,
hormairudiz betea; lanpara baten alboan
ohea, ametsetarako bazter enea; armarioak,
erdi zabalik, inolako lotsarik gabe erakusten du
ezordenuz pilaturiko arropen irudi anizkoloreduna;
ispilurik ez;
erdian, elkarri begira, mahaia eta aulkia gaurko ia
arratsalde guztian nirekin bat izan dira; lurrean
baso bat ur, banaizezpanaiz egarri.
Musika soinua airean,
zigarroa hautsontzian,
cassette-zintak ondoan,
liburu batzu pilaturik
eta imajinazioa joanik.

Hau nire gela...
A!, eskuan luma eta papera,
nire gustura aldatu egiteko aukera.

# Telebistako Keaton-en aurrean idatzi nahiean

Telebistan zeukat
Keatonen filma:
«El maquinista de la General».
Ondoan botila,
haruntzago, baiari begira,
inoren jabe ez denaren makila.
Borrokan ari duk Keaton
destinoaren kontra,
ilusioen zai.

Hementxe,
ostera, nauzue egun
neu,
hitz-kate isilez
existentziaren hutsean,
zertzelada deseroso antzo,
paperaren zuritasunean zirikatu ala.

Burura datorkidan parajea
anitz eratan molda daiteke,

baina nola, ordea, pinta liteke,
lumak lerrotzen duen burutazioan, norberarengan
datzan minberatasuna?

# Norakoak?

**a)**

Beldurrez
konposatzen zaidan irudiak
egunero ohi dakarkit
diruz
eraikitako paisaje mutua;
ametsetan dudan gogoak
ezin du sendatu
indarrez isildutako hitz mindua.

Gauez gero
negar egindako goizak
busti egiten dit
desesperantzazko basamortu zuria;
egunsentiko argian, aldiz,
maskaratu egiten zait,
—barrez—,
begi nekatuon begirada kaskarrau...,
lanez

sorturiko ideia leialek
erantzun gisa jasan behar dituztelarik
hotzez
jantziriko hots zaharrak;
zergaitik honen bizimodu zatarra?
zergaitik lotsatu ni,
nagusia nagusi den kontrako alboradan?

**b)**

bizitzaren burrukan
negarra dario gaur
atzoko esperantzari:
hiri estuaren hormetan
denboraren seinaleak
bihotzaren baitan finkatzen baitira,
noraezeko ibilaldian
galtzen naizelarik.
Zimenduzko erraldoi baten artean
lan isilduaren historia agortua,
izengabeko ibiltarien bizimodu sakrifikatua,
ke tarteko arnas estua.

Jokabide latza,
sasoi mingotsa.

**c)**

Kitarra jole gaztearen
nota gosebera plazaratu berriek,
—azken hatsa izkutatzen didaten
paret lodi, astun hauen artean—,
topo egiten dute
gorren zorabioa;
lau haizeetara botatako
mezu hegalariak,
bortxaz isildutako
mutuen ahoan,
bilatzen du
sekulako pasadizoa.

**d)**

Kaleetan zehar noa,
bakarrean,

bidean zeruertzea ikusiko ote dudan
esperantzan.
Baina,
pixkat geroxeago,
ohean neketsu, arrenkuratsu
logaizkatu ala,
neure buruari itaunduko diot:

«Non ote dira behar pertsona libreengan
mugarriak?»

**e)**

Askatasuna!
joana zara,
zure zimarkuak niregan iraun nahi du baina;
luze egiten zait
zure hemengoaren eza.
Areago sartzen zait,
—baitan—,
denboraren igaropen ahituaren ezpata.

**f)**

Hil-dantzaren jauzi musikatuak
gorputza daroa hara-hona
txistuaz mozkorturik,
denboratasuna ihesi zaidala gauean,
lurrun bihurturik.

Nork lerrake, ni ikustean,
zuregana joan nahi dudala?
Nork labur lezake
pausoon gose kexkatiaren antsia?

Soinu ritmikoa,
mugimendu konpasatua,
barruan loratzen diren
nota femeninoak,
begien desio izkutua.
Hauxek dauzkat
kontrolatu ezin ditudan sentimenduak.

Bizitzak amaiera pairatzen duela
ez dut orain sinestu nahi.
Nire gogoeta eroak

ezin ditut une honetan nirekiko
gorde...
eta zuengana,
beso, hanka, oin eta gerri
su-bihotzak eraginik,
—hilaren azken hatsa
biziro moteltzen den bitartean—,
infernuko dantzari pekatariek ere
lagunduta, estuka
dizuet zuzentzen
oraingoxe taupadaren boza.

Bizimodu zibilizatuaren zeregina,
ezezagunen betebehar bakartia,
denok sufritu izan dugun
erantzunik gabeko deihadar basatia;
Oizen sua,
txalapartaren deia,
elkartu behar dugun seinalea.
Betiko egiaren aurrean
zai zaudekidala,
utopia zapalduen irrintzi izuorrak
eztarri librean bilatu nahi du
askazioa.

**g)**

Askatasuna!
dantzari agoniatsua.
Gure tartean
zaila duzu topatzen
hilobia.
Akerbeltzaren udaberriko ritoetan,
kobazuloen iluntasunaren babespean
bota behar duzu mandatari fededunen garizuma
usteldua
Noiz arte izkutua?
Noiz arte isildua?
Noiztik itsutua?

**h)**

Marginatuen jaia bukatuz doa,
hilargibetearen solas inprobisatua
askatasunezko errautsak,
gauzaleen zelai, belardi gosatien

orlegi reibindikatuan, lasai, leunki,
pitin-pitinka zabaltzen dituen batera.

Dantza debekatuaren pizkundea,
behinolako saltoen eraso agindua,
egunsentiko ihes nekatuaren adioa,
herioak dakarkidan atsedenaldi maitatua,
paketsua.

Zuregan nago, azkenik,
egun berriaren
argipean itsuerazirik.
Zurekin, halaber,
igerika nago,
ahaltsuek mugatzen duten
libertatearen itsas ur erotikoetan
—erabat txunditurik—
murgilduta.

# Bost axola dio

**a)**

Odol gorriz galduriko ikurrinean
oihu bihurtu zen
herriaren grina.

Zeru griska euritsuan
lanbro fina azaldu zen
zotinka.

Udazkeneko azken egonaldi eztitsuan
bazihoan
uso zuria arinka.

**b)**

Gazte, zahar nahiz ume,
bata bestearen ondotik
urrundu egiten gara
elkarrengandik.

Milaka bialtzen gaituzte,
—Handiki zikinok!—
ondoegi konprenitzen ez dugun
mundu honetatik nora goazen ere
jakin ezinik...
hantxe bertan
denok berdin garenik
sinestu izan nahi gaberik.

Bortizki bialtzen gaituzte.
Elkarrengandik urruti,
bakarrean,
beldurraren isilpean...
bizitzari eskatu nahian
poemattoren bat.

**c)**

Hemen betiko ezaren eza,
ihesa ez baitugu erreza.

Hemen mugadura,

atalaia honetatik dakusadan
kateaturik dirauen hegadura.

Itsaso eta mendia.
Biak beldurrez jantziak,
etsaien banderari josiak.
Zeinek hil du kabian uso txuria?

Altxatzen dut burua
baina ikusi ez argia.
Zergaitik jarraitu bizia
galduz gero esperantza guzia?

**d)**

Gor bihurtzen gaituzten oihu entzungaitzak
hezurmuinetarako sartzen zaizkigu,
gertakizun pentsaezinak iruditu ala.

Nora joan zaizkigu
aspaldi hartan modurik ederrenean,
jira-biraka, libreki aidean, zamagabe,
inguratu gintuzten ilusio neurgaitzak?

Hara gu gizakiok,
—ausartzen naiz ni galdegiten—
auskalo zerk sorturiko bizidun herio ekarle
madarikatuok,
non gordeko ditugun begi odoltuxeak
albokoen hautsa gurean erantsiz gero.

Baina bost axola dio.

# Ni nor naizen
# ez dakidan honi

Bat, bi...
hona etorri,
hara joan.

Hiru, lau...
izerdia atera
eta ekin gogor.

Hau badago
beste horri falta zaio.
Zertan habil?

Klin klin klin...
betiko zarata,
metalezko hots.

Gaua.
Hire gose asegabea,
nire atsekabea.

Kra kra kra...
karru madarikatua,
noiz isilduko ote haiz?

Hemengo hau
hara eraman,
horko hori
honuntzago ekarri,
hango hura
ez da egoki;
oraingo berriak kontatu behar,
baina komeni zaigun haina.
«arin, arin
motel,
astirik ez diagu eta» .
Gaueko abotsa,
nagusien adimen hotza,
egundaino gelditu ez den
erlojuaren orratz zorrotza.

Buelta bat, beste bat.
Hirugarrena,
laugarrena.
Azkenekoa.

Odola atera orduko,
nora joan behar?

Kra kra kra...
karru madarikatua,
noiz isiluko ote haiz?

Harri puntalatuak.
Oztopo txikiak eta handiak,
ikusten ez ditugun
eragozpen traidoreak,
hor-han-hemenka dautzan
suge beltzak.

Beste aldetik
ni eta hi.
Biok bakarka.

Kra kra kra...
bidearen garrasia,
ilunpeko abesti mikatza.

Marmiten musika sakratua,
gaueroko burdinazko agurra,

partitura zuhurra,
joan-etorriaren ibilbide kaxkarra.

Karru zahar hori,
zergaitik nire atzetik?

Gauerdiko enparantzan,
egunsentiko esperantzan
gogoratzen diat nik
hire deihadar-hotsa.

Kantu garratz hori
ez dario edonori.
Soinu zahar hori
doakio bidean dagoenari.

Zurak, harriak eta burdina,
izarpeko ibilaldi urdina,
hilargiaren zuri kolore argia,
nire geroaren grina,
hire desatsegina;
alegiazko irudi nabarra,
udaberriko txio garbia,
hiregan dagoen marmara,
etorkizunaren habia.

# Erantzuna

Esaidazu, arren,
ahalik lasterren!

Mundu honetako azokan saltzen naute errez,
ez naiz ni zeredozer merke
eta bilaukeriak egiten nau erre.
Izan ere,
ez naiz ez jaun ez jabe,
ezta maizter ere.
Ez dut behar errege,
berdintasuna nahi nuke lege.
Justiziaren hazia ez da berria,
baina ez du emanen garla historiaren harian.
Egia sortzen da dorpe
ondoan honebeste dorre traidore.

Esaidazu, faborez,
non dagoen pakearen lore,
dignitatearen zelaietako brioleten more;
zein den gezurraren kolore,
zeri eman behar ez diodan amore.

Askatasun gose
ez du oraindik gizonak ase.
Libertatearen zilbor-hestea non ote?

Mundu berrearen promesak daude eten,
agintarien ahotan larregi ele.
Aspalditik dihardute ohore gabe
geronek aurkitu ezinik ez etxe ez ohe.

Agurearen esana ez da omen bete
hemen oro gauden arren pakearen alde.
Gorrotoaren poderio
handinahiari dario,
ez dago zorion
ez bizimodu on;
gerra edonon...
batera herio.
Eskutan odol,
zorroan babesgabeko zor,
desjabetuen lurrak agor.

Haizeak darama oinaze ahoz aho...
Jaungoikoa non?

# Kanpoko kresala ikutu nahi

Egongela ketua.
Argi motela,
berba eskas.

Asko gara elkarren ondoan.
Inor ez,
ostera,
elkarren baitan.

Hitz-jokoak,
irriño zabalak,
negar isilak.

Kanpoko kresala ikutu nahi
barne-hotz honetako solasaldi bakartian.

Egun ororen denborapasa,
gomutaren eredu koloregabekoak,
irrati amets-zalea.

Apainketa urreztua non eta
nire burutazioen irudi estuetan.

Honenbeste berriketa azpian
nola loratu ote
beste era batera moldatu behar dugulako ideia?

# Ilusioen negarra

Orduak pasa dira
luzea egiten zaidala eguna,
eta minutuak astun daramazkit nire gain.

Bizitzak negarra eman du
eta ez du bilatzen beharrezko beroa.

Ez dago kristalean ispilurik aurkitzerik
ez eta sentimenduen —bere beste aldetik—
etortzerik.

Beste garai gogora dezaket
baina experientziaren kutsu hilkoi antzera
gelditzen da
iraganean.
Ezin dut mantendu aspaldiko egoera.

Ilusioak.
Galduta egonda, mundua aurrera doa
aurrerakintzak ezin duela parkatu norbakoitza.

Bizi nahi baitut geroa
hemendik ihesi noa.

Idatzi nahi baitut etorkizuna
kezka eta ohore bizitzaz jantzirik doa.

Bizi-desioak
dakarren alegiazko ordain honek
ez du lehor araziko
saminari darion malkoen erroa.

# Agur esatea

Ttikitandik entzun nion,
mojen ikastetxetik gurasoen etxera
bazkaltzen nindoala,
agur esaten zidala
zazpi urtetako beste mutiko ikaskide bati.

Hemengo enparantzan zen hura,
lehenengo udaletxe zaharraren ondotxoan,
ia sarrera gisa dauden eskaileretan bertan.
Hantxe.

Orain egunak joanik
garai hark nolakoa
izan behar zuen
nire burutik igaro da
jakinminez:

baserri, mahats eta sagar,
edozein igande epeltsuren arratsalde goxoan
jendea belarditan etzanda, olgetan...
elkarrizketan,

udaberriko usain freskoa,
maiteminduen hitz eztiak, berritsuenak

Bizkaitarron huri gainean,
Bizkaiko erreginaren atetan,
karlisten Zumalakarregiren zauriaz,
nire auzoko kalearen izen horiak
—erdieroria—
etsipenez eta minez oroitzen du
zuhazti eta belar.
Gogoan dut
gehien atsegin zitzaidan
udazkeneko orrien kolore gorria.

Begoñaren historian
behin
entzun nion nik
ni bezalako umetxo bati,
bere etxera bazkaltzen zihoala,
agur esaten zidala.
Orduantxe.

Orain ere,
lerrootan

sasoi urrun huraxe
gogoan birbizitzen dudan bitartean,
aurretxoan
eguneroko argi izpiak
eta
gaueroko hilargi hotz zuria
neureganatzen uzten dizkidaten
basatiki erroturiko zimenduzko loretxeek
gogorrak, mutaezinak, usaigabekoak, lehorrak,
gizakiok erahiltzen gaituztenak,
izadiak eskaintzen digun paradisu urtsua
desafianteki izkutatzen digutenak
hauexek
—diodan—
ezin dute
nahiaren zorionez
gogoramenaren freskura berdatua
niregandik aldenerazi.

Orain hogei urte,
ormigoi harmatuzko erraldoirik
sortu aurretik
nire adineko mutiko bati
agur esatea entzun nion nik

jadanik ez dagoen belarrez sorturiko eserlekutik
jaikitzen zelarik.

Hau jazo zen
ume koxkorra besterik
ez nintzelarik,
etxera abaitu ala,
eta agurrak
nora eraman behar ninduen
ez nekien garaian

# II. aldea:
# ZUTAZ

Gaua...
hilargipeko solasa,
beharra daukagun hitzaren esperantza.

Maite zaitudalako...
Zutaz ari.

# Zeu, ederrezko lore

Iluntzen hasia itsaso garbian,
han,
ez dagoen zubian,
badoa makal,
patxaran,
eguneko argia.
Haren bistan,
arras xoragarria,
naturaren perfila, olatuen mugimendu geldia,
denboraren soinu-haria, xurrumurruaren agonia.

Naturaren perfila, irudi naturala,
pakezko uhin urdin-berdeon etorrera lasaia,
urezko maindire zabalak, arimaren ispilu dohaina,
ibiltarien su bizia, ametsen melankolia.

Ilunabarra,
benetan atseden nabarra.
Zuregan indar duena
ez ote da lagunik ederrena?

Oinezko bidea, ibilitako harea,
itsasertzeko bidai hezea,
hegoaldeko haize epelaren laztan alaia.

Zu, ederrezko lore,
leun, eme,
olerkariengan amaia ezagutzen ez duen gaia,
sentimenduen goren senda,
maitasunerako etorbidea.

# Apirilaren lau egun

Lau egun izan dira,
zein baino zein sinpleagoa.
Lau egun izan dira
zein baino zein arinagoa.

Laurok ederrak izan dira.
Laurok niregan betirako finkatu dira.
Lau egun izan dira,
eta izena dute Apirila.

Gau bakoitzean
oinak busti izan ditut itsasertzean.
Gau bakoitzean
oinak estali ditut
uhin nahastuaren hondakin ernaiez.
Lau gauotan,
sentitu dut soinean
libre bizitzearen hunkipen izutua.

Lau egun izan dira,
eta laurok baitan geratu dira.

Lau egun izan dira
eta lauotan sentitu naiz mutila.

Lau egun joan dira
eta laurok gogoan errotu dira.
Lau egun besterik ez dira
eta barruan daramat beraien desira.

Lau egun loratu dira...
eta izena dute Apirila.

# Hilargia azaldu orduko

Argi izpiak dirdirika,
gaueko deseo-tantak haize boladan...
Zoritxarrekoen begiek triste diraute
oraingo honetan:
nire baladan.

Harkaitzeko handitasuna
zure ezpainen gorritasunean;
gaueko isiltasuna,
—entzun ezinezkoa—,
itsasoaren edertasunean
maiz isilagoa.

Itsas indar zabala
zure irriño paregabekoan;
gaueko baretasuna,
—urduritu ezinezkoa—,
oraingo egonaldian
are lasaiagoa.

Udazkeneko olatuetan
jolastu nahi dut ukan.
Udazkeneko uretan
maitatu nahi dut ukan.
Itsas lau maite:
gaur nire etxe,
arrainen habia,
betiko lilia,
piraten herria,
deskontsolatuen hobia;
gau ilun honetan zu ez joateagatik
zer egingo ez nuke nik?

Hilargia azaldu orduko joan bazoaz,
neu ere noa.
Hara non itsasoa lekuko.

# Buruz buru

Buruz buru gaude egun
aldendu egingo ote garen
aukeran.

Elkarri gatozkio gaur,
goizak zer ekarriko ote digun
bildur izanik ere.

Alaien ikusten zaitut, maite,
ederrena baitzara irrifarrez.
Ikarak nago, ostera,
hemen, bazter ilun honetan
negarrez,
dardarez.

Elkartu gara biok arrosa kolorezko
gela huts honetan.

Banuen pentsaturik pintura, koadro edo eskultura
izeneko

hainbat irudiz
zure etorrerak janztea.

Zenbat aldiz asmatu dudan nik zure ederrezko
forma enkantagarri, gogoa
neuregandik joanik.
Agian,
gogoramen-paradisuaren ur-doinu jarioak
mozkorturik;
beharbada,
ahanzkaitzetik ihes egin ezinik;
edo,
akaso zer ote dakit nik...
Zenbat aldiz ihardun dudan, hemendik
zeren bidez irtenbiderik bilatu nahirik.

Bero eta hotz.
Dagoenean bon-bon:
dagizula on!

Ez dagoenean, hor konpon:
jarraitu han berton!
Hona hemen bizitzaren bitasuna,
hara non desioaren hots.

Paret hertsi, bukaezin hauezaz
bestealdean
non izkutatu zaren
deika nagokizu, egon.
Eta, xurrumurrua... emeki-emeki,
ia nerau konturatu egiteke,
jaun eta jabe dateke,
amets edankorrean barrena
naizelarik joaki.

Egia erranen nizuke
isilduko banintz.
Nola, ordea,
lehortu iturria,
—Urik ezik—
ipar izarrak arnasa bialtzen badit?

Bisitan etortzen zarenotan
leihoa, argizuloren bat bila dezazun
nahi nuke nik,
ikusi gura baitut,
bai,
zeruertz gorrituaren begirada;

entzun gura baitut,
bai,
ume negartien balada;
ikutu gura baitut,
bai,
haize geldituaren hegala;
musukatu gura baitut,
bai,
goiz argituaren xurrumurru makala;
besarkatu gura baitut,
hamaika aldiz... bai!,
bizitzaren hatsa.

Zeu nirekin ez bazina
nork sinestaraziko lidake
giza gezur hau,
nork adituko luke
ilunpeko nere oihu ito hau;
nork ez luke ukatuko...
behin betirako egunsentian
joan beharko nukeenik?

# Zeru liluragarri honen aurrean

Zeru liluragarri honen aurrean,
barne osoan sentitzen dudan
hotz jelatu honek
bizirik nagoela diosdala...
entzun nahi nuke nik.

Urruneko mendien irudi ilunean,
etzanaldi paketsuan diharduen
zeruertz isil gainean,
hilargiaren zuri makalak
hantxe bertan zeu zautzala diosdala...
entzun nahi nuke nik.

Ilunabarrean,
lotsaz gorriturik doakigun
beroaren aurpegi nekatuak, zure bular tartetik,
agurra iragartzen digu,
pekatuaren bidean sartu nahirik.
Geroago,
egunsentiaren ihintzian bertan,

errekaren ertzean arnasa hartzen duen
neskatxaren gorputz zuri-zuria
niregana datorrela sentitzen dudanean,
gaueroko zure falta
maiz nabariago barneratzen dut.

Segundu bat zer den ez dakien
olerkariaren gerizpean zehar,
zureganako bide gailurrean,
maitasunarentzako gordetzen duzun
iturburu sutsuan
urtu nahi nutre sentimendua gaur eta bihar.

Neskatila ile urregorriduna,
non izkutatu duzu irribarre alaia?
nongo uretan busti dituzu-bular eztiak?

# Elkarrenganako indar hautsia

Etxera joanda gero
zertarako negar egitea,
baldin eta zurekin ezin egoteak
maizago banatzen badu
elkarrenganako indar hautsia.

Atean geratu da beldurra. Egunabarrean
elkarri esandako agurrak
lurperatu nahi du, bion basamortuan,
leihoan zehar dakusadan zeruko argizagia.

Konprenituko al duzu, agian,
barnetik ihesi azaltzen zaidan oinaze sufritua,
isildu ezin dudan tormentuaren soinu herdoildua,
ikusten ez zaitudanez geroztik
motelduz doan maitasun-erroa?

Zertarako egon etxean
negar eginez gero,

zertarako nire biziera
zurea ez ezagutuz gero.

Hara non egunaren argia,
esan beharraren sentimendu garbia:
Bai ote niregandik joango
aspaldian finkatu izan zaidan dudarik frango?

# Kale luze heze honek

Kale luze heze honek
ezingo nau
zure oroitzapenari
uko egitera
indararazi.
Zirrara antsiaturik ez biziturik,
zureganako naizelakoa ez nuke,
baitatik,
joaterik gura.

Zuregandik urrun xamar banago ere,
oraingo instantes bizi nahi dut
zutaz pentsatzen.
Ez ote duzu gogoan
promesa dugun hitz mutua?
Ez ote da
ordukoxe bion agurpen isila
oraingoxe hasiera aske eta zabala?

Zuregan banintz...
nintzaizuke mintzatuko,

esanen nizuke, esan,
nola bihurtzen diren zahar
gazte izan ziren hitz goxoenak.

Noiz elkartuko berriz?
Agian inoiz.
Hala ere,
noiz?

# Behar zaitut

Ezagutzen du nire gorputza
zure eskunaba leunak.
Ireki dute zure loin desinteresatuek
barneko ildo zabalena.
Joan dira, aldiz,
ingurutik,
zure irriño alegerak.

Behar zaitut.
Gaur ere,
zuregandik entzun nahi dut
maitasunaren oihartzuna.
Gaur ere,
zure ondoan maite,
jarraitu nahi dut tente.

Hemen nagokizu zuri deika.
Hemen nago geldi.

Gelditu,
pausoa aurrera eman nahi...
eta ezin mugitu.

Ba ote nonbait
ametsetan sinestu izan dudan paradisu?

Pentsatu nahi dut
maite,
plaza hartan, zure etxe ondokoan,
—hara joatekotan—
zu topatu behar zaitudala.

Ikusi nahi dut
maite,
izkina hartan, autobus geltokiaren parean,
—begiak irekitzekotan—
ni besarkatzera zatozela.

Sentitu nahi dut
maite,
nire bular kontran, euripean,
—han izatekotan—
zure indar guziak aurkitu behar ditudala.

Sentitu nahi ditut,
gaur ere maite,

momento honetan,
—gehien behar zaitudanean—
eskua elkarri eskainiaz
maiteminduen lehenengo musuaren
ezpain dardaratsuak.

Behar baitut
maite.
Arren,
itzul zaitez.

# Agurtzera natorkizu

Agurtzera natorkizu gau beltzean,
topatzen nauzun
izkina izkutatu eta ixil honetan
zure zain nagokizun
bitartean.

Eguna.
Segundu, minutu eta ordu guztien
bilera geraezina,
iraganaldi sufrituaren oraina,
bizitzaren ordaina.

Laguna.
Neskato begi-ilunduna,
egunsentiarekin etorria,
hilargiarekin ihes egina.
Zergaitik
hain berandu niregana ailegatu?
Zergaitik, ordez,
hain errez ni abandonatu?

Badakit
noruntz abiaturik zaren jadanik.
Badakit
aspaldi honetan
elkarrengandik aldendurik
—jakin ere—
gaudela ordudanik.

Gau beltz honetan ere
hautsari hots egitera naiz zuzentzen
atzoko bazter ikusezinetik,
zure alegiazko jantzi deskoloratuen
aitzinean.

Nongo lurpean
betiko atsedenaldia
atsegin duzun
aitortuko banizu,
aldamenean sortzen zaizkizun
brioleten usai berritsuaren bidez
ulertuko zenuke
zergaitik diraudan negarrez.

Eternitatearen etenean,
denborarik gabeko harri-zulo hotz honetan

guragabetsu dihardudala,
amaibako ixiltasunak tristatu egiten du
munduari bidaltzen diodan
zuri kantatutako poema bizitu hau.

# Hare hezean zeratzen haren izena nago

Itsasoko harkaitzak.
Batzu handiak, batzu txikiak;
dagoeneko ilunpean edozein puntotan
itsasoari erantsiak.

Itsasoko harkaitzak,
amets hegalarien harrizko lekuko entzule.
Zuen artetik, goseti,
olatuen mugimenduaren balanzeoa
niregana dator aintxitxika,
harean markaturiko pauso geldietaz
arinago jabetuko delakoan.
Eta
nire oin busti berri artetik ari da
geraezin,
jakin ezik
mundua eta zerua elkarrenganako musuan batean
bat
direnean, zuen artean biziturikoaz gogoraturik,
berriro hemen izango naizenik.

Gaur ere,
hare hezean zeratzen haren izena nago,
ez baitut bera baino hitzik bilatzen
nirekin datorrenik barebide honetaraino,
non ur-lur jolasa magikoa zeuekin ari baita
irudi poetikotan olgetan nire gogoetan.
Non ere, zuen aurrez, gau epel izartsupean
gure bi gorputz biluziek elkarrez ezagutu zuten
amodiozko ohe.